

LENE KANTAK
BISONTE-
MASTODONTEAREN
BILA



HAURRENTZAKO MUSIKA ETA DANTZA EUSKARAZ

Ene Kantak proiektuak **2010**ean hasi zuen ibilbidea. Hasiera bateko planteamendua guztiz apala, xumea izan zen: euskarazko haurrentzako abestiak sortzea eta eurekin Nafarroako ikastetxetako haurrekin bideoklipak grabatzea. 2011. urtearen hasieran Ene Kantaken lehen diskoa argitaratu zuten, 19 abestirekin.

Harrera bikaina

Abesti hauek antzerkira eramatea erabaki genuen eta Liburu magikoaizeneko antzezlanak sortu genuen. Musikak eta koreografiak pisu handia izan zuten eta entzulegoaren erantzuna itzela izan zen.

2012. urteaz geroztik gure musika Euskal Herri osoko herri eta hiri guztietara eraman dugu, gure ikuskizunak antzokietara eta pabiloietara bezala.

Bide honetan zehar gure Youtube kanalean **150 euskal abesti berri** baino gehiago publikatu ditugu, **100 milioi bistaratze** baino gehiago ditugu, 10 disko argitaratu eta 4 liburu sortu ditugu. Hauek guztiak haur ikusle eta entzuleei zuzenduak.

Ene Kantak Unibertsoa, bere abestiak zein pertsonaiak telebistara eraman ditugu **5 denboraldiz**, hurrei zuzendutako **ETB3** kanalean 1250 kapitulo baino gehiago emitituz.



Ene Kantak-en helburua beti izan da euskarazko abestiak sortzea, guraso eta haurren arteko transmisioa errazte aldera. Familia asko euskararen erabilera indartzeko, sendotzeko ekintzen beharrea daude: hezkuntzarekin loturiko giro batetik kanpo erabiltzea da gakoetako bat.

Hautzaroan zehar euskararen erabilera egonez gero, eta era berean poza eta ongizatea eskainiz gero, etorkizuneko adinetarako hazi esanguratsu bat landatzen ariko gara: honela, euskara gehiago baloratuko dute eta aurreragoko garai batzuetan erabilera bermatuko da.

Zergatik kokatu gara Historiaurrean?

Historiaurrea oso gai erakargarria da haurrentzat. Hainbat ikastetxetan proiektu bezala lantzen dute, oso eduki interesgarriak eta aberasgarriak landu baitaitezke.

Geure ingurua ezagutu, geure geografia eta eskaintzen dizkigun baliabideak, **natura zaintzen eta errespetatzen** ikasiz. Emanaldia Aralar mendilerroan kokatzen da; leku hau bizileku bilakatuko da, eta gure pertsonaiei bizitzeko baliabideak emango dizkie. Besteak beste, fruituak bilduko dituzte, ehizera joango dira, eta kobazuloa babeslekua izango da.

Txikienek ikaskuntza eta sormena esnatu, talde-lana sustatuz, gure inguruan duguna baliatzea zeinen erraza izan daitekeen ikusiaraziz, era berean horrek daukan balioa erakutsiz.

Genero berdintasunean aurrera egitea, oholta gainean gehiengoa emakumeak izanik eta hauek paper esanguratsuak betez. Beteko dituzten funtzioak tradizionalki gizonezkoei lotuagoak egon direnak izango dira.



Bisonte-Mastodontearen bila euskarazko haur antzerki bat da, eta Nerea Urbizuk idatzi eta izen berbera duen liburuan oinarrituta dago. Honetan musikak garrantzi handia du.

Aralar mendizerra Historiaurrean islatzen duen eszenografia ikusgarri bat, ikus-entzunezko euskarriarekin konbinatzen da.

Agertokian kobazulo handi bat eta su eder bat ageri dira, ilustrazio bizidunekin osatutako hondoak erakusten dituen pantalla batekin batera.

Batzuetan dantzen koreografiak indartuko dituzte ilustrazio hauek, eta bestetan emanaldiko giro desberdinak sortuko dituzte:

zeru izartsua, edo ekaitz bat, esaterako.

SINOPSISIA

Suaren inguruan lo egin ondoren jaiki dira: taldea prest dago ehizera joateko. Oraingoan bai, oraingoan harrapatuko dute bisontea.

Isiltasuna nagusi, taldean doaz. Denak erne, bisonteari so. Prest daude, geziak bizkarretik hartu... o, ez, Axeri!!

Aire, Asto, Sator, Oki eta Axeri ez dakit gai izango ote diren bisontea harrapatzeko. Izan ere, Lehen Gizakien garaian arriskuak handiak ziren. Harrapatuko ote dute Bisonte mastodontea?

Ala Bisonte mastodonteak harrapatuko ditu bost lagunak?





IZENBURUA Ene Kantik Bisonte-mastodontearen bila.
TESTUA Nerea Urbizu Ruizen “Ene Kantik Bisonte-mastodontearen bila” liburuan oinarritua.

KONPAINIA Ene Kantik.
ZUZENDARIA Jaione Urtasun Izal.
GIDOILARIA Alaitz Olaizola Borda.
URTEA 2024.
HIZKUNTZA Euskara.
IRAUPENA 80 minutu gutxi gorabehera.
IKUSLEAK 2 urtetik gorakoa.

AKTOREEN ZERRENDIA

- ASTONAUTA Jon Zubiaga Ainara
- SATORJATOR Unanua Garazi San
- AIRE Martin Uxue
- OKI Rodriguez Irati
- AXERI Lizarraga Ene

MUSIKA

ARGIAK SOINUA

ILUSTRAZIOAK

BISUALAK

ESZENOGRAFIA

JANTZIAK

PANPINAK

PRODUKZIOA

KONTRATAZIOA

BANAKETA

Kantik Oscar Garcia
Roberto Irisarri
Mikel Santos Belatz
Jon Manterola
Maite Astiz
Sara Redondo
Mikel Ibarzabal
Jesus Irujo
Fermin Sarasa
Ene Kantik



KONTAKTUA

Kontratazioa: Fermin Sarasa - 644273518

antzerkia@enekantak.org

Informazioa: kaixo@enekantak.org

www.enekantak.org

www.enekantak.org



BAT EGIN GUREKIN!

dirulaguntzailea